



**EUSKARA ZERBITZUAREN 2023KO DEIALDIA  
EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK  
EMATEKO**

**1.- XEDEA**

Deialdi honen helburua da 2022-2023 ikasturtean helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten zumaia orori dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

Laguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira, eta emateko prozedura Zumaia Udalaren Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

**2.- ONURADUNAK**

2022-2023 ikasturtean helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten zumaia orori izango dira dirulaguntza hauen onuradun, betiere deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Ikasturte hasieran, euskara ikasi nahi duten herritar guztiek aukera izan dezaten, babesgabetasun egoeran dauden herritarrei matrikula kopuruaren zati bat Udalak ordain diezaieke, betiere egoera hori buruz arloko teknikariak aurrez egindako balorazioan oinarrituz.

**3.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA ETA  
EPEA**

Deialdi honetako eskabide ereduaren arabera aurkeztu beharko dira Udalaren Erregistro Orokorrean edo telematikoki

**CONVOCATORIA DE 2023 DEL SERVICIO DE  
EUSKERA PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS  
PARA APRENDER EUSKERA**

**1.- OBJETO**

Esta convocatoria tiene por objeto regular las condiciones para la concesión de las ayudas destinadas a todos los habitantes de Zumaia que hayan realizado cursos de euskaldunización y alfabetización para adultos durante el curso 2022-2023.

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, y el procedimiento será el establecido en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Zumaia.

**2.- BENEFICIARIOS/AS**

Serán beneficiarios/as de las presentes subvenciones aquellos/as vecinos/as de Zumaia que hayan realizado cursos para el aprendizaje de la lengua vasca y alfabetización para personas adultas durante el curso 2022-2023, siempre y cuando estos cumplan con las condiciones establecidas en la presente convocatoria.

A principio del curso, para que todas las personas que quieran aprender euskera puedan optar a ello, el Ayuntamiento se podrá hacer cargo de una parte de la cuantía de la correspondiente matrícula en caso de darse una situación de vulnerabilidad, siempre en base a una valoración previa del personal técnico del área sobre dicha situación.

**3.- LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE  
SOLICITUDES**

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento o telemáticamente a través del registro de

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EDIR0001-S23/00032
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt</a>



www.zumaia.eus egoitza elektronikoaren erregistroaren bidez.

la sede electrónica www.zumaia.eus, y según el modelo de solicitud de esta convocatoria.

Eskaerak uztailaren 3tik abuztuaren 4ra bitarteko epean aurkeztu beharko dira lehenengo deialdian (urritik ekainerako ikastaroenak) eta irailaren 11tik urriaren 13ra bitartean bigarren deialdian (udako ikastaroenak).

Las solicitudes deberán ser presentadas del 3 de julio al 4 de agosto en el caso las solicitudes de primera convocatoria (para cursos de octubre a junio), y del 11 de septiembre al 13 de octubre en el caso de solicitudes de segunda convocatoria (para cursos de verano).

Eskabideak aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak berariaz eta oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

La presentación de solicitudes supone la aceptación total y expresa de todas las condiciones establecidas en la presente convocatoria.

**4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

**4. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR**

Eskabideak deialdi honetako eranskinetako eredu normalizatuaren bidez egingo dira. Horrekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Las solicitudes se formularán mediante el modelo normalizado del anexo de esta convocatoria. Deberán acompañarse a la solicitud los siguientes documentos:

- a) Ikastaroa ordaindu izanaren egiaztagiria.
- b) Egindako ikastaroaren maila eta asistentzia % 80tik gorakoa izan dela ziurtatzen duen agiria, euskaltegiak edo ikasketa zentroak berak emana.
- c) HABEren dirulaguntzen 2022ko deialdian eskaera aurkeztu izanaren agiria (maila egiaztatu edo dagokion atalasea gainditu duten ikasleek bakarrik).

- a) Documento acreditativo de haber abonado el importe del curso.
- b) Documento acreditativo de asistencia a más del 80% de las clases del curso y de nivel estudiado, expedido por el propio euskaltegi o centro de estudios.
- c) Justificante de la presentación de la solicitud para la convocatoria de subvenciones de HABE de 2022 (solo para las personas que hayan superado un nivel o aprobado la correspondiente evaluación).

Zumaia Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak

El Ayuntamiento de Zumaia mediante el Nodo de NISAE, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EDIR0001-S23/00032
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt</a>



edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

Horren ildotik, Zumaia Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

En este sentido, el Ayuntamiento de Zumaia verificará los siguientes requisitos para acceder a estas subvenciones desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, NISAE:

- NANA edo agiri baliokidea.
- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.
- Lan bizitzaren txostena (lanik gabe egon direnean bakarrik)

- DNI o documento equivalente.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.
- Informe de vida laboral (solo en personas desempleadas)

Zumaia Udalak ofizioz egiaztatuko du harekiko betebeharrak betetzen direla. Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

La certificación de estar al corriente con el Ayuntamiento de Zumaia se realizará de oficio. En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EDIR0001-S23/00032
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt</a>



**5.- AURREKONTUKO DIRU HORNIDURA**

Deialdi honetako dirulaguntzetarako 16.000,00 € daude 1 0200.481.335.10.01 2023 (105) kontu sailean. Sail berean errotuluetarako izendatutako dirua erabili ahal izango da, betiere aurrez agortu ez bada.

**5.- DOTACIÓN PRESUPUESTARIA**

Para las subvenciones de esta convocatoria destinarán 16.000,00 € que se encuentran en la partida 1 0200.481.335.10.01 2023 (105). Se podrá disponer de la dotación asignada en la misma partida para las subvenciones de rótulos, siempre y cuando no se haya agotado antes.

**6.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.**

2022ko urritik 2023ko irailera bitartean egindako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak lagunduko dira diruz: aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak nahiz barnetegikoak

**6.- GASTOS SUBVENCIONABLES**

Se subvencionarán los cursos de euskaldunización y alfabetización realizados entre octubre de 2022 y septiembre de 2023: presenciales, de autoaprendizaje y cursos de internado.

**7.- ESKAERAK BALIOZTATU ETA LAGUNTZAK EMATEKO BALDINTZAK**

Euskara Zerbitzuko teknikariek egiaztatuko dute eskatzaileek baldintza guztiak betetzen dituztela. Hau da:

- Egindako ikastaroan % 80ko asistentzia
- Egindako ikastaroa ordaindu izana
- Zumaian erroldatuta egotea ikastaroak irauten duen bitartean.
- Eskatzaileak betebeharrak eguneratuak dituela.

**7.- VALORACIÓN DE SOLICITUDES Y CONDICIONES PARA EL OTORGAMIENTO DE LAS SUBVENCIONES**

El personal técnico del Servicio de Euskera se encargará de comprobar que los/as solicitantes cumplen todas las condiciones. Es decir:

- Asistencia al 80 % del curso realizado.
- Abono del curso realizado.
- Empadronamiento en Zumaia durante la realización del curso.
- Que la persona solicitante está al día en sus obligaciones.

**8.- EBAZPENA**

Euskara zerbitziburua izango da instrukzioaren arduraduna eta, aurrez Euskara Batzordean txosten teknikoak aurkeztu eta gero, alkate dekretuz ebatziko da.

**8.- RESOLUCIÓN**

La persona responsable del servicio de euskera de hará cargo de la instrucción, y tras presentar el informe técnico en la Comisión de Euskera, se resolverá mediante decreto de alcaldía.

Guztia gehienez 6 hilabeteko epean egin beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Todos esos trámites deberán ser realizados en un plazo máximo de 6 meses, contados a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EDIR0001-S23/00032
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt</a>



Aipatutako epea igaro eta gero, Udalak eskabideren bati buruzko erabaki zehatzik hartu gabe izango balu, erantzuna ezezkoa dela esan nahiko du horrek.

Una vez transcurrido dicho período y sin que el Ayuntamiento haya tomado una decisión en concreto sobre alguna de las solicitudes, ésta se entenderá denegada.

**9.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK**

**9.- CRITERIOS PARA CUANTIFICAR LA SUBVENCIÓN**

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, honako irizpideok hartuko dira kontuan:

Para el cálculo de las subvenciones a conceder se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

1. Ikastaroak irauten duen bitartean lanik gabe egon den ikaslearentzat ordaindutako matrikularen % 100 izango da laguntzaren zenbatekoa.

1. Para las personas que durante el transcurso del curso hayan estado desempleadas el importe de la subvención será el 100% de la matrícula abonada.

2. Gainerakoentzat ordaindutako matrikularen % 75 izango da laguntzaren zenbatekoa.

2. Para el resto el importe de la subvención será el 75% de la matrícula abonada por el alumno/a.

Bi epealditako ikastaroak bereiziko dira:

Se distinguen dos periodos:

a) Euskalduntze eta alfabetatzeko ikastaroak (2022ko urritik 2023ko ekainera): eskatzaile bakoitzari gehienez 600 euroko laguntza emango zaio.

a) Cursos de euskaldunización y alfabetización (de octubre de 2022 a junio de 2023): la cantidad máxima que se subvencionará por solicitante será de 600 euros.

b) Udan egindako euskara ikastaroak (2023ko uztailetik irailera): eskatzaile bakoitzari gehienez 200 euroko laguntza emango zaio.

b) Cursos realizados en verano (de julio a septiembre de 2023): la cantidad máxima que se subvencionará por solicitante será de 200 euros.

Barnetegien kasuan, diruz lagundu daitekeen gastua eskola orduen matrikularen zenbatekoari egokituko zaio; ez da laguntzarik emango mantenu eta ostatu gastuetarako.

En el caso de los internados el gasto subvencionable se corresponderá con el importe de la matrícula de las horas lectivas; no se darán ayudas para gastos de manutención y alojamiento.

Udalak dirulaguntzetan ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

En el caso de que el importe a abonar sea superior al asignado en el presupuesto para ese concepto, se hará reparto proporcional entre todas las personas solicitantes.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EDIR0001-S23/00032
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt</a>



ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

**10.- BATERAGARRITASUNA**

**10.- COMPATIBILIDAD**

Emango den dirulaguntza bateragarria izango da xede berarekin jaso daitekeen beste edozeinekin, baldin eta gainfintzaketarik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagokion kopurua itzultzeko eskatuz.

La ayuda que se otorgue será compatible con cualquier otra que se perciba al mismo objeto, siempre que no se produzca sobrefinanciación respecto a los costos totales del objeto de las ayudas. En tal caso, se procederá a la deducción de las cantidades que procedan a fin de evitar tal circunstancia, no abonándose, o reclamándose la devolución de las cantidades correspondientes.

Zumaia Udalak eskubidea izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin eratzeko, betiere deialdi honen xede den gaiari atxikita. Era berean, emandako dirulaguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrenda HABEra (Helduen Euskalduntze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) bidaliko da, dagokion datu basean dirulaguntza hauen berri jaso ahal izateko.

El Ayuntamiento de Zumaia podrá cotejar con otras administraciones públicas los datos aportados por cada solicitante, circunscribiéndose siempre a la materia objeto de la presente convocatoria. Además, la relación de subvenciones concedidas, las personas beneficiarias y sus cuantías se enviarán a HABE (Instituto para la euskaldunización y alfabetización de Adultos), para que estas ayudas se recojan en la base de datos correspondiente.

Ikasturtean zehar HABEren mailaren bat edo baliokideren bat egiaztatzen duten ikasleek, baldin eta oinarrien arabera dirulaguntza hori jasotzeko eskubidea badute, HABEK ikasturte horretan egingo duen deialdian parte hartu beharko dute eta agiri bidez egiaztatu. Zumaia Udalaren dirulaguntza HABEK emandakoaren osagarria izango da.

Los alumnos y alumnas que durante el curso escolar superen algún nivel de HABE o equivalente, en el caso de que tengan derecho a percibir esa subvención, deberán presentarse a la convocatoria de HABE de ese año y acreditarlo documentalmente. La subvención del Ayuntamiento de Zumaia será complementaria a la que conceda HABE.

**11.- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA**

**11.- ABONO DE LAS SUBVENCIONES**

Banku transferentzia bidez egingo da dirulaguntzen ordainketa, onuradunaren titulartasuneko kontu batean.

El pago de la subvención se realizará mediante transferencia bancaria a una cuenta de titularidad de la persona beneficiaria.

Dirulaguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren % 100 ordainduko da.

Una vez comunicado el otorgamiento de la subvención, se hará efectivo el pago del 100 % de la cuantía aceptada.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EDIR0001-S23/00032
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt</a>



**12. ARAUBIDEA ETA ERREKURTSOAK**

Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri berezietan (2022ko abuztuaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 163. zk.) xedatutakoari jarraituko zaio laguntza hauek emateko.

Oinarri horietan aurreikusi gabeko alderdi guztietan betetzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzko lege orokorra (azaroaren 18an argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean); lege horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25ean argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean); Zumaia Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzaile Orokorra (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.); eta Zumaia Udalaren eta Kirol Patronatuaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2021eko martxoaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 59 zk.).

Interesdunek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko deialdi hau onartu duen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeokoaren berriarazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

**12. NORMATIVA Y RECURSOS**

Para la concesión de estas subvenciones se procederá según lo dispuesto en las bases específicas para la concesión de ayudas para aprender euskera (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 163, de 29 de agosto de 2022).

En todo lo no estipulado en esas bases, serán de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (publicada en el Boletín Oficial del Estado del 18 de noviembre); el Reglamento de Desarrollo de dicha ley, aprobado mediante el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (publicado en el Boletín Oficial del Estado del 25 de julio); la Ordenanza Normativa General sobre otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 151, de 11 de agosto de 2020); y el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento y del Patronato de Deportes de Zumaia. (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 59, de 30 de marzo de 2021).

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la presente convocatoria recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EDIR0001-S23/00032
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt</a>



## EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA

### SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA EL APRENDIZAJE DEL EUSKARA

Interesduna: / Persona interesada:

<b>Izen-abizenak</b> / Nombre y apellidos		<b>NAN-AIZ</b> / DNI-NIE	<b>Jaiotza data</b> Fecha de nacimiento
<b>Helbidea</b> / Dirección		<b>Herria</b> / Población	<b>PK</b> / CP
<b>Sexua</b> / Sexo	<b>Telefonoa</b> / Teléfono	<b>Helbide elektronikoa</b> / e-mail	
Emak. <input type="checkbox"/> Giz. <input type="checkbox"/> Ez-binarioa <input type="checkbox"/> Mujer Hombre No binario			
<b>Euskaltegiaren izena</b> / Nombre del Euskaltegi		<b>Ikastaroa</b> / Curso	<b>Matrikularen kostua</b> Coste de matrícula
<b>Lan egoera ikasturtean</b> / Situación laboral durante el curso			
Lanean, ikasten edo erretiroa hartuta / Trabajando, estudiando o jubilado/a <input type="checkbox"/>		Langabezia / En paro <input type="checkbox"/>	Zenbat denbora? / ¿Cuánto tiempo?
<b>Oharrak</b> / Observaciones			

Banketxea (dirulaguntza sartzeko): / Entidad bancaria para ingreso de la subvención:

<b>Banketxea</b> Entidad bancaria	<b>Kontu zenbakia (IBAN barne)</b> / Número de cuenta (con IBAN)
	E S

<b>NOLA JASO NAHI DITUZU ESKABIDE HONEN ERANTZUNAK (Telematikoki jaso nahi badituzu ziurtagiri digital bat beharko duzue (B@kq, FNMT...)) eta telefono mugikor eta helbide elektronikoko eremuak bete behar dituzu.</b> CÓMO SE QUIERE RECIBIR LAS NOTIFICACIONES DE ESTA INSTANCIA (Para recibirlas telemáticamente es necesario tener un certificado digital (B@kq, FNMT...) y rellenar los campos de teléfono móvil y correo electrónico.	<b>Telematikoki</b> Telemática <input type="checkbox"/>	<b>Posta arruntez</b> Correo ordinario <input type="checkbox"/>
<b>ESKAERA HONEN ERANTZUNA ELE BIETAN JASO NAHI DUT (Ezer adierazten ez bada, euskara hutsean egingo da) / SOLICITO QUE SE RESPONDA A ESTA INSTANCIA EN EUSKERA Y CASTELLANO. (Si no marca la casilla, la respuesta será en euskera)</b>		<input type="checkbox"/>

<input type="checkbox"/> <b>BAI, 2022/2023 ikasturtean euskara maila ofizial bat egiaztatu dut (edo B1 eta B2 mailetako atalasearen ebaluazioa euskaltegian gainditu) eta HABEren dirulaguntzen 2023ko deialdian eskaera aurkeztu dut. Gainditu edo egiaztatutako maila:</b> <input type="checkbox"/> A1 <input type="checkbox"/> A2 <input type="checkbox"/> B1 <input type="checkbox"/> B2 <input type="checkbox"/> C1 <input type="checkbox"/> C2	<input type="checkbox"/> Sí, durante el curso 2022/2023 he superado un nivel oficial de euskera (o he aprobado la prueba de nivel de dominio de los niveles B1 y B2) y he presentado la solicitud en la convocatoria de subvenciones de HABE de 2023. Nivel superado o aprobado: <input type="checkbox"/> A1 <input type="checkbox"/> A2 <input type="checkbox"/> B1 <input type="checkbox"/> B2 <input type="checkbox"/> C1 <input type="checkbox"/> C2
<input type="checkbox"/> <b>Ezin dut HABEren dirulaguntza jaso, ez dudalako 2022/2023 ikasturtean maila ofizialik egiaztatu, edo ikasitakoa baino maila apalagoa gainditu dudalako edo iaz jaso nuelako mailari zegokion laguntza (atalasea gainditzeagatik).</b>	<input type="checkbox"/> NO tengo derecho a percibir la subvención de HABE, por no haber acreditado ningún nivel oficial durante el curso 2022/2023, por ser el nivel superado inferior al del curso, o por haber recibido el año pasado la ayuda correspondiente a ese nivel (por haber superado la prueba de nivel)

<b>Dokumentu kod./Cod. Documento</b>	2023EDIR0001-S23/00032
<b>CUDO kodea/Có. CUDO</b>	<b>000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt</b>
<b>Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos</b>	<b><a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt</a></b>





Adierazten dut ez dudala debekurik dirulaguntza publikoak jasotzeko.  Declaro que no tengo ninguna prohibición que me impida obtener subvenciones públicas.

BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK	SERVICIOS QUE SE SOLICITARÁN MEDIANTE LA PLATAFORMA DE INTERMEDIACIÓN DE DATOS
<p>Eskatzaileari informatzen zaio, Zumaia Udalak bere dirulaguntza ordenantzan (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 151. zenbakia, 2020ko abuztuaren 11koa) eta euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri berezietan (2022ko abuztuaren 26ko GAO, 163. zk.) ezarritako baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.</p>	<p>Se informa a la persona solicitante, que el Ayuntamiento de Zumaia va a verificar los requisitos establecidos en la ordenanza general de subvenciones (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº151, del 11 de agosto de 2020) y en las bases específicas para la concesión de ayudas para aprender euskera (BOG nº 163, de 29 de agosto de 2022) desde los servicios de las plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. La persona solicitante tendrá opción a oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• NAN edo agiri baliokidearen kontsulta</li> <li>• Lan bizitzaren txostena (lanik gabe egon direnean bakarrik)</li> <li>• Gipuzkoako Foru Aldundia – Zerga betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta</li> <li>• Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta</li> </ul> <p><input type="checkbox"/> Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dut</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Consulta del DNI o equivalente</li> <li>• Informe de vida laboral (Sólo en personas desempleadas)</li> <li>• Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias</li> <li>• Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social</li> </ul> <p><input type="checkbox"/> Me opongo, y aporto la documentación requerida</p>

<p>Dirulaguntza eskatu ahal izateko, agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Matrikula ordaindu izanaren agiria</li> <li>-Asistentzia ziurtagiria (gutxienez % 80)</li> <li>-HABEren dirulaguntzen 2023ko deialdian eskaera aurkeztu izanaren agiria (maila egiaztatu edo dagokion atalasea gainditu duten ikasleek bakarrik)</li> <li>-Aurrez aurkeztua ez bada edo kontu zenbakia aldatu bada: hirugarrenen alta emateko agiria (eranskinean), banketxean sinatuta eta zigiluz jota</li> </ul>	<p>Documentos que hay que aportar junto con esta solicitud para poder solicitar la subvención:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Justificante del abono de la matrícula</li> <li>-Certificado de asistencia (mínimo 80%)</li> <li>-Justificante de la presentación de la solicitud para la convocatoria de subvenciones de HABE de 2023 (solo para las personas que hayan superado un nivel o aprobado la correspondiente evaluación).</li> <li>- En el caso de que no se haya presentado antes o se haya cambiado el número de cuenta: documento de alta de tercera persona interesada (anexo), con la firma y sello del banco</li> </ul>
---	--

Zumaia, 20 \_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ (a)ren \_\_\_\_\_  
(Eguna/ Fecha)

\_\_\_\_\_  
Sinadura  
(izen-abizenak eta NAN-AIZ adierazita)

\_\_\_\_\_  
Firma  
(con nombre, apellidos y DNI-NIE)

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EDIR0001-S23/00032
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt</a>



Datu babesari buruzko oinarritzko informazioa		Información básica sobre protección de datos	
<b>Tratamenduaren Arduraduna</b>	Zumaia Udala Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa) Datuak Babesteko Ordezkarria: <a href="mailto:dbo@zumaia.eus">dbo@zumaia.eus</a>	<b>Responsable del tratamiento</b>	Ayuntamiento de Zumaia – Zumaia Udala. Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa) Delegado/a de protección de datos: <a href="mailto:dbo@zumaia.eus">dbo@zumaia.eus</a>
<b>Helburua</b>	Udalaren eta haren mendeko erakundearen aurrekontu-, ekonomia- eta kontabilitate-jardunaren ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea.	<b>Finalidad</b>	Gestionar la información personal derivada de la actuación presupuestaria, económica y contable del Ayuntamiento y sus entes dependientes.
<b>Zilegitasuna</b>	DBEDBLO 8.1 eta 8.2. artikulua: legezko betebeharragatik, interes publikoagatik edo botere publikoak baliatzeagatik buruturiko datuen tratamendua.	<b>Legitimación</b>	Artículos 8.1 y 8.2 LOPDGD: tratamiento de datos personales en cumplimiento de obligaciones legales y en cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos.
<b>Komunikazioen hartzaileak</b>	Zumaia Udalak Zerga Administrazioari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta dagozkion administrazio publikoei jakinarazi ahal izango dizkie zure datuak, tratamendu honen esparruan aplikagarria delako legez hala ezartzen bada.	<b>Comunicación de datos</b>	El Ayuntamiento de Zumaia podrá comunicar sus datos a la Administración Tributaria, a la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como a las Administraciones Públicas pertinentes en caso de que legalmente así se establezca por ser de aplicación en el ámbito de este tratamiento.
<b>Eskubideak</b>	Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze, aurka egiteko, transferitzeko eta mugatzeko eskubideak erabiltzeko eskubidea duzu, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko ere.	<b>Derechos</b>	Tiene derecho a ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, portabilidad y limitación, así como presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección Datos.
<b>Informazio gehigarria</b>	Datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuak babesteari buruzko atalean: <a href="https://zumaia.eus/eu/udala/datu_en_babesa">https://zumaia.eus/eu/udala/datu_en_babesa</a>	<b>Información adicional</b>	Puede consultar la información adicional y detallada sobre protección de datos en el apartado de protección de datos de nuestra página web: <a href="https://zumaia.eus/es/ayuntamiento/Proteccion_de_datos">https://zumaia.eus/es/ayuntamiento/Proteccion_de_datos</a>

<b>Dokumentu kod./Cod. Documento</b>	2023EDIR0001-S23/00032
<b>CUDO kodea/Có. CUDO</b>	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
<b>Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAEP4EB.Tnqt</a>



## ERANSKINA/ANEXO

**HIRUGARREN INTERESDUNARI ALTA EMATEA (lehen aurkeztua bada, ez da beharrezkoa agiri hau betetzea)**  
ALTA DE TERCERA PERSONA INTERESADA (si ya se ha presentado antes no hace falta cumplimentar este documento)

**HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK**  
DATOS IDENTIFICATIVOS DE LA TERCERA PERSONA**NAN/AIZ/IFZ**  
DNI/NIE/CIF**Izena eta bi abizenak**  
Nombre y dos apellidos**Helbidea**  
Domicilio**Posta-kodea**  
Código postal**Herria**  
Población**Lurraldea**  
Provincia**BANKUAREN DATUAK**  
DATOS BANCARIOS**BANKUA (IBAN kode eta guzti)**  
BANCO (con código IBAN)**BULEGOA**  
AGENCIA**KOD**  
DC**KONTU ZENBAKIA**  
Nº CUENTA**JABEA**  
TITULAR

**Oharra: Kontuaren jabeak hirugarrena bera izan behar du.**  
Nota: El titular de la cuenta tiene que ser el mismo que la tercera persona interesada.

**Bankuaren adostasuna**  
Conforme banco**Sinadura eta zigilua**  
Sello y firma**Hirugarren interesdunaren adostasuna**  
Conforme tercera persona interesada**Sinadura**  
Firma**Udalaren onespena**  
VºBº Ayuntamiento**Sinadura eta zigilua**  
Sello y firmaZumaian, 20 \_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ (a)ren \_\_\_\_\_  
(Eguna / Fecha)

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EDIR0001-S23/00032
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAEP4E.B.Tnqt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAEP4EB.Tnqt</a>